

Xabier Rubio: “Habitatak gutxitu direlako desagertu dira anfibioak”

Guillermo Roa Zubia

Elhuyar

Ziurtatuta ez badago ere, badirudi anfibioak urritzen ari direla eta desagertzeko arriskuan egon daitezkeela. Munduko hainbat adituk alarma piztu, eta ikerketa sakona egiteko premia dagoela esan dute. Euskal Herrian ere badago arazo hori aztertzeke beharra, bertako anfibio-espezie askotan joera hori garbia baita. Beharbada, adibiderik nabarmenena Hegoaldeko zuhaitz-igela da. Aranzadi Zientzi Elkarteko kideek igel hori babesteko proiektu bat dute esku artean. Xabier Rubio biologoa proiektu horretan ari da lanean.

Anfibioak desagertzen ari dira? Zein egoeratan daude munduan?

Oro har, bai. Argi eta garbi ikusten da desagertzen ari direla. Populazioak gainbehera datoz, eta ez dago jakiterik zergatik ari den gertatzen. Faktore asko daude. Ikertzaileak kezkatzen hasi ziren Erdialdeko Amerika, Hego Amerika eta Australiako zenbait espezie deskubritu eta handik gutxira populazioa urritzen ari zela ikusi zutelako. Deskubritu eta urtebetera, adibidez, milaka ale zeuden lekuetan erabat desagertuta zeuden edo bakar batzuk gelditzen ziren. Horrek alarma piztu zuen, batez ere espezie horietako batzuk oso deigarriak zirelako.



G. ROA ZUBIA

Ezezagunak ziren faktore batzuk aurkitu dira, baina oro har zergatik gertatu den ez dago jakiterik. Badirudi klima-aldaketak zerikusirik baduela eta asko hitz egin da horretaz, baina arazo horren historia nahiko berria da eta, beraz, oraindik ez dago ziurtatzerik zergatik den; kasu jakin batzuetan bai, baina ez orokorrean.

Berez naturan sortutako egoera da, edo gizakiak eragindakoa?

Ez dago jakiterik kasu guztietan. Toki batzuetan ez da desagertzeko arrazoen arrastorik geratzen. Arazoa da populazio asko ez direla aldeztatik ikertu, eta haien

dinamika ere ez dugula ezagutzen. Baina toki askotan argi gelditu da anfibioak desagertzeak zerikusi handia duela gizartearen jarduerarekin. Anfibioak mundu osoan desagertzen dira, habitatak gutxitu egin direlako. Ur-masak, putzuak eta lakuak lehortu egin dira, eta bestela poluitu. Espezie askok ez dute poluziorik onartzen. Baina, poluitzen ez direnean ere, toki horiek lehortu edo beste gauza batzuetarako erabiltzen ditugu.

*“hegoaldeko zuhaitz-
-igelarena kasu
berezia da, garai
batean klima
aproposagoa zelako
espezie horrentzat”*

Bestalde erabiltzen diren pestizidek eta beste substantziek ere eragina dute, anfibioen elikagaiak, intsektuak batez ere, gutxitu egiten direlako. Gainera, substantzia horiek toxikoak dira. Kontuan hartu behar da anfibioek azal berezia dutela; ez da benetako azala, mukosa baizik, izan ere, azaletik arnasa hartzeko gaitasuna dute. Horrek, nolabait, kalteberagoak egiten ditu.

Toki batzuetan erradiazio ultramoreak ere zerikusia duela behatu da. Gizakiak kutsatutako onddo batzuk ere aurkitu dira, kitridioak. Nahiko arazo larria da; Iberiar Penintsulan jada aurkitu da lehen kasua. Zoritxarrez, badirudi toki batzuetan zientzialariek kutsatutakoak direla, ez zelako ezagutzen. Orain, aldiz, horren aurka oso neurri zorrotzak hartzen dira, material guztiak desinfektatzen dira, ez da material bera leku batetik bestera eramaten, eta abar. Badirudi onddo horren hifak garatzen direla anfibioaren azalean, arnasketa eragozten dute eta anfibioa hil egiten da. Oso denbora laburrean milaka hil daitezke, aste gutxitan adibidez, eta, beraz, hilkortasun-tasak asko handitzen dira.

Beste faktore batzuk ere badaude: behar duten landaredia moztea, suteak eta abar. Baina agian garrantzitsuena da anfibioek toki hezea behar dutela ugaltzeko. Ura desagertzen bada eta putzuak lehortzen badira, oso azkar desagertzen dira.



Hegoaldeko zuhaitz-igela.

Espezie guzti-guztiekin gertatzen da?

Nik uste dut oro har anfibio guztiak ari direla gutxitzen. Baina espezie batzuk nonahikoak dira, hau da, leku guztietan aurkitzen dira. Horiek, normalean, arazo gutxi izaten dituzte, ugaltzeko toki bat edo beste erraz aurkitzen dutelako. Dena den, Euskal Herrian oso arruntak diren espezieetan ere (igel arrunta, uhandre palmatua, ...) lehen ugaltzeko erabiltzen zituzten tokiak hiriak ari dira bereganatzen eta toki horiek desagertzen ari dira. Inolaz ere ez daude arriskuan, baina kontuan hartu beharreko arazoa da, arriskuan egon daitezkeelako baldin eta bere habitatak kentzen badizkiegu.

Hegoaldeko zuhaitz-igelaren kasua nabarmena da. Zein da oraingo egoera?

Zuhaitz-igelarena kasu berezia da, Euskal Herrian ez dagoelako zabaldua. Espainiako hegoaldean asko dago, baina hemen oso kasu berezia da. Zerikusia du garai bateko klimatologiarekin; mediterraneoagoa zen. Baditugu beste adibide batzuk, artelatza eta artea adibidez, garai batean klima aproposagoa zelako espezie horientzat. Hain zuzen ere, zuhaitz-igelaren izena hortik dator, uretatik zuhaitzetara eta kutsu tropikala duten landare horietara igotzen zelako.

Garai batean, igela Euskal Herri osoan zegoen banatuta, eta pixkanaka, bai klimak, bai beste espezie batzuek bul-tzatuta, leku jakin batzuetara geratu dira mugatuta. Landetan ere badaude, lurralde horrek nahiko klima mediterranea duelako, eta Mediterraneoko eta Landetako popu-



X. RUBIO

Anfibioak eboluzioan 'zaharkituta' gelditzen ari direla esan daiteke?

Izan liteke, baina, dena den, populazio gehientsuenetan desagertzeko joera azkartu egin da. Uste dut, hala gertatzekotan ere, urte askotako prozesua izan beharko lukeela.

Kalkulatu da 10 eta 100 milioi espezie egon daitezkeela, eta milioi bat baino zerbait gehiago ezagutzen dira baka-rik. Oraindik espezie asko ez dira ezagutzen; gehienak ornogabeak dira: intsektuak, onddoak, bakterioak eta abar. Horietatik asko ezagutu ahala desagertzen dira. Beraz, ez dut uste gertatzen ari den prozesua naturala denik.

Zein da anfibioen jatorria? Ez dago garbi urtarrak, lehorrekoak edo bietakoak diren. Esan liteke uretik lehorrerako eboluzioaren erdibidean geratu direla?

Kontuan hartu behar dugu beste batzuk lehorrera pasatu ondoren uretara itzuli direla, baleak eta izurdeak, adibidez. Animalia horiek garatuagoak dira anfibioak baino, goi-mailako ugaztunak dira.

lazioen artean zubi bat dago. Zubi horretan ere populazioa urritzen ari da, eta, gainera, etenak daude.

Hemengo zuhaitz-igela isolatuta gelditu da; gertueneko populazioa iparraldekoa izan daiteke, baina kilometro askotara dago, eta inongo loturarik ez dute. Guk azterketa genetikoak egin nahi dugu, hegoaldekoekin batera garai batean populazio bera osatu zuten edo ez jakiteko. Ez dut uste endogamia-arazorik duenik hemengo populazioak, ale-kopurua ez baita oso urria, baina argi dago sor daitezkeela. Aldakortasun genetikoak beste populazio batzuetan baino txikiagoa izango da; igel guztiak neurri batean 'berdintsuak' izango dira. Dena dela, hori, eta arriskuan dagoen ala ez, azterketa genetikoak esango du.

Ba al dago beste kasu aipagarririk?

Berez populazio interesgarri batzuk badaude, baina ez da zuhaitz-igela bezalako beste kasurik gertatzen. Oso interesgarria da, esaterako, uhandre piriniarra, Nafarroan eta Pirinio osoan oso ugaria dena, baina hemen toki gutxitan bizi dena. Leitzarban bailarako putzu batzuetan bizi da, baina gutxi dira. Gailurretako uhandreena ere kasu interesgarria da. Gure mendietan geratzen diren populazioak ez dira oso onak. Adibidez, Aralarren daudenak gutxi dira eta arazo asko dituzte. Apo lasterkaria Txingudin, Araban eta Nafarroan dago; area dagoen inguruetan bizi da. Kostaldean ugaria zen lehen, baina ia desagertu da. Txingudikoa oso kasu bitxia da, oraindik ale askok irauten dutelako. Izan ere, gure erkidegoan kaltebera bezala sailkatuta dago.

*“oraindik espezie
asko ez dira
ezagutzen; horietatik
asko ezagutu ahala
desagertzen dira”*

Zer ikerketa-mota eta proiektu garatzen ari da munduan arazoa aztertzeke eta, beharbada, konponbideak bilatzeko?

Ez dakit mundu osokoa den, baina European behintzat bada erakunde bat arazo horretaz arduratzen dena: DAPTF (Declining Amphibian Population Task Force). Horrez gain, beste taldetxo batzuk ere badira. Guk ere talde bat sortu nahi dugu gai horren inguruan, lehendik dauden taldeekin harremanak sendotzeko, komunikazio-bideak irekitzeko eta informazioa zabaltzea errazteko. Horrela, egiten ditugun ikerketak eta estrategiak beste taldeekin banatu-ko genituzke. Kontserbaziorako zer neurri hartu behar diren eztabaidatu ahal izango genuke eta protokolo bat sortu jarduerak zerbait estandarizatzeko. Normalean ikerketak puntualak izaten dira, baina populazio batzuek, aldiz, hamabost, hogeit hamar urtez jarraitzea eskatzen dute. 